

3. gaia

Izen-sintagmaren azterketa (2)

2. “Determinatzaileak” 1

- 2.1. Talde bat bitan banatu beharra 1
- 2.2. Egiatzko determinatzaileak: mugatzaileak eta kideak 2
 - 2.2.1. Mugatzaileak 2
 - 2.2.1.1. Artikulua. 2
 - 2.2.1.2. Erakusleak 4
 - 2.2.2. Determinatzaile zehaztugabeak 5
 - 2.2.2.1. Determinatzaile partitiboa 5
- 2.3. Zenbatzaileak (zehaztuak, zehaztugabea, orokorrak) 9
 - 2.3.1. Zenbatzaile zehaztuak (edo numeralak) 9
 - 2.3.2. Zenbatzaile zehaztugabeak 10
 - 2.3.3. Zenbatzaile orokorrak (edo *unibertsalak*) 13
- 2.4. Determinatzaileei buruzko azken oharrak 14

2. “Determinatzaileak”

2.1. Talde bat bitan banatu beharra

- Zentzu klasikoan, *determinatzaile* izen arrunt batekin IS osa dezakeen edozeini deitu ahal zaio:

- (22) * liburu erosi dut, *lagun ikusi duzue?, *haur etorri da, *kafe gustatzen zait ...
- (23) liburua /liburu hau ... erosi dut
- (24) a. bost liburu, ehun liburu
b. liburu asko, nahiko liburu, liburu ugari
c. liburu guztiak
.... erosi dut/ditut
- (25) edozein liburu erosten duzu

➔ alde horretatik *-a, hau, bost, asko, guztiak...* determinatzailetzat hartuko genituzke.

- Baina, IS berean bi “determinatzaile” izan daitezke sarritan, baldintza jakin batzuetan:

- (26) a. **bost liburuak**, **bost liburu horiek**, ...
b. etorri den jende **gutxi hori** / zure lagun **ugari horietariko** batzuk...

- c. **bost* liburu *asko* b. * *libururik hau* c. **liburua hau*

→ beraz: mugatzaile itxurakoak eta zenbatzaileak elkarrekin bateragarriak dira, baina talde bereko bakarra agertu liteke IS bakoitzean:

(27) IS berean, beraz, egoera honekin egiten dugu topo:

- a. √ zenbatzaile bat + mugatzaile bat
- b. * zenbatzaile bi
- c. * mugatzaile bi

● Ondorioz, “determinatzaile” kategorian, egiazki bi kategoria bereizi behar dira:

- a. mugatzaileak (eta antzekoak) = askorentzat, hauek dira egiazko determinatzaileak
- b. zenbatzaileak

2.2. Egiazko determinatzaileak: mugatzaileak eta kideak

2.2.1. Mugatzaileak

2.2.1.1. Artikulua.

● **Formak (-a, -ak, -ok):**

- (28) a. ertzain-a galdezka etorri zait
b. ertzain-ak galdezka etorri zaizkit
- (29) a. Atzo ikasle bi ikusi nituen Zapateria kalean. Eta ikasle bi-ok...
b. Euskaldun-ok burugorrrak omen gara

● **Artikuluaren erabilera**

a. **Noiz ez**

- (30) a. Jone(*a) hil da b. zeu(*a) etorri zara
c. Ez dute sagarrik (*a) saltzen
d. Libururen bat(*a) irakurri beharko duzu
e. Jon Ameriketara joan zen artzain (*a)
f. Lagun gutxi etorri dira (hala ere...: etorri ez diren lagun gutxi-ak)
g. Bost kilo sagar erosi ditu (hala ere...: eta bost kilo sagarrak garesti)

b. Noiz bai:**► izendapen eta aurkezpenetan:**

- (31) a. Arzak *jatetxea*, Eroski *supermerkatua*, Artium *museoa*
 b. Nola esaten da euskaraz “agua”? *Ura* esaten da.
 c. Guk *leia* esaten dugu, baina beste leku askotan *izotza* esaten dute.

► IS erreferentziadunetan, dela zehaztuak dela zehaztugabeak:

- (32) a. Erosi d(it)uzu esandako liburua(k) /ardoa? (zehaztua)
 b. *Liburuak* erosi ditut (zehaztua edo ez)
 c. *olioa* erosi dut (zehaztua edo ez)
 d. Jonek *etxea* erosi du (zehaztua edo ez)

► Predikatu osagarri eta atributuetan (aditzaren arabera)

- (33) a. Nire auzokoa *literaturako irakaslea* da (zenbait predikatutan)
 b. Igela *printzipe* bihurtu zen

► IS generikoetan (“edozein I”-ren kide direnetan)

- (34) a. *Ura* edari osasungarria da (balio generikoa)
 b. *Txakurra* animalia argia da / *txakurrak* argiak izaten dira

● Artikuluaren balioa

- a. Artikulak IS aurkezteko eta izen kategoriako hitzak izendatzeko balio du (31);
 b. artikuluak IS erreferentziadunak sortzeko balio du (32);
 c. IS erreferentziadun horiek zehaztuak (= alde aurretik ezagunak entzulearentzat; izaki bakarra dela ulertzen da) izan daitezke edo ez (32-ko interpretazio diferenteak);
 d. artikuluak IS predikatu osagarriak eta generikoak sortzeko ere balio du (ik. 33-34).

- (35) **-a, -ak:** [\pm erreferentziadun, \pm zehaztua]
 a. erreferentziaduna bada, zehaztua edo ez izan daiteke
 b. erreferentziaduna ez bada, predikatu osagarria edo generikoa izan daiteke
 [eskuarki, izen zenbakarriekin artikulu singularrak balio zehaztua izaten du]

► itzulpenek lagundu ahal digute artikuluaren balio askotarikoak hobeto ulertzen:

- (36) a. Jon fisika irakaslea da (cf. Jon es (el, un) profesor de física)

- | | |
|----------------------------|--|
| b. Jonek ardoa edan du | (cf. Jon ha bebido (el) vino) |
| c. Jonek autoa erosi du | (cf. J. ha comprado (el, un, ø) coche) |
| d. Jonek autoak erosi ditu | (cf. Jon ha comprado (los) coches) |
| e. Autoak erosoak dira | (cf. cars are comfortable) |

2.2.1.2. Erakusleak

- **Formak:**

- (37) a. singularrean: hau, hori, hura
 b. pluralean: hauek, horiek, haiek
- (38) hon-, hor-, ha(r)- *baina* hau-, hori-, hai-

- erakusleetan oinarritutakoak:

- (39) a. hemen, hemengo, hemendik, hona(ino), honantz, honako...
 b. hor, horko, hortik, horra(ino), horrantz, horrako, ...
 c. han, hango, handik, hara(ino), harantz, harako, ...
- (40) honela, horrela, hala...
- (41) a. honenbeste, horrenbeste, hainbeste
 b. honen, horren, hain (<*haren)

- **Balioa:** Erakusleek beti dute balio erreferentziaduna deiktikoak direlako.

- (42) a. garai honetan... b. gela honetan...
 c. Basurdea agertu zitzaion, eta basurde *honek*...

- **Erakusle indartuak**

- (43) hauxe, horixe, huraxe, ...
- (44) honexetan / honetantxe, ... honixe/ honexeri ...

- **BER-en gainean eraikitako erakusleak (berau, berori, bera)**

- (45) a. etxe berau b. ber gizona
 c. etxe berbera (cf. txiki-txikia) d. arazo ber(e)tsua
 e. gauza ber bat f. Jainko bat ber hau
 g. ala juduen ber da Jainkoa ? (EGLA: 85)

● **Erakuslea eta artikulua batera (mendebalean)**

- (46) *Kalea hau ... *Kale haua ...
- (47) a. hau kaleau / hau kalea
b. hori kaleori / hori kalea
c. ha kalea
- (48) a. hónek etxeok / hónek etxeak
b. hórrek etxeok / hórrek etxeak
c. hárek etxeak

2.2.2. Determinatzaile zehaztugabeak

● Talde honetakoak: zein, zer, zernahi, zeinahi, edozer, edozein, partitiboa

- (49) a. Zer (etxe) da hau? / * Zer etxea da hau?
b. Zein ikasle etorri da? / * Zein ikaslea etorri da?
- (50) a. Zernahi gauza entzun behar izan genuen
b. Euskal Herriko zeinahi eskualde eta euskalkitan (EH 776)¹
- (51) a. Edozer gauza sinesten du. (EH 200)
b. Edozein irakaslek erantzun ahal dizu galdera hori

2.2.2.1. Determinatzaile partitiboa

● **Formak:** -ik / -rik²

- (52) a. orbelik, liskarrik, ..
b. burrukarik, arazorik, ...

► Komeni da argitzea partitibo guztiak ez direla determinatzaile partitiboa.

¹ EH = Sarasolaren (2007) *Euskal Hiztegia*.

² Interegarria litzateke (de Rijk 1972b eta EGLA 186-91) erreferentziak gainbegiratzea. Hemengo oharrik de Rijk-en “Partitive assignment in Baque” artikuluari jarraitzen diote neurri handi batean.

b. bateragarria da zenbatzaileekin:

- (59) a. Ez dago jende *askorik* b. Ez dakigu *nahikoa* dirurik dagoen
c. Inork ez du *hiru* lagunik ikusi

c. partitibodun IS beti da singularra:

- (60) a. gure aitak ez du libururik irakurtzen (partitiboa = singularra)
b. * gure aitak ez ditu libururik irakurtzen

d. baina, beste determinatzaileak ez bezala, absolutiboarekin (NOR gisa) baino ezin da erabili:

- (61) a. * *ehiztaririk* ez du otsoa harrapatu (NORK = ergatiboa)
b. *ez diot *ikasle-rik-i* gezurrik esan (NORI = datiboa)
c. Hemen aspaldtik ez da *otsorik* agertu (NOR = absolutiboa)
d. Baserritarrek aspaldian ez dute *otsorik* ikusi (NOR = absolutiboa)

- **Zein testuingurutan aurkitzen dugu determinatzaile partitiboa?**

A testuinguruak (ezeztapenaren ingurukoak)

a. Ezeztapena bera:

- (62) a. Ez dugu arimarik ikusi mendiean
b. Ez dut gauza txarrik egin
c. Barkatu, baina ezin dut horrelakorik onartu
d. gaitasunik eza, dirurik eza, lanik eza ...
- (63) a. *Nekez* entzungo diozu horri hitz zakarrik
b. Eta horrela *nekez* lortuko da gizarte osasuntsu eta alairik.
- (64) a. Noiz esan du horrek gauza interesgarririk?
b. Non aurkituko duzu Gasteizen jatetxe etiopiarrik?

b. Bai ala ezko galderetan:

- (65) a. Ogirik erosi duzu?

b. Liburu berririk irakurri duzu azken boladan?

c. Baldintzazko perpausetan

- (66) a. deitu egidazu, laguntzarik behar baduzu
b. Babarrunik jaten baduzu, zinera eramango zaitut

d. *bakarrik, soilik* bezalako hitzekin egiten diren galdegai indartuetan:

- (67) TRUMPEK bakarrik esan zezakeen horrelako *astakeriarik*.
(68) ZEURI soilik bururatu ahal zaizu halako txantxa txarririk.

e. Predikatu *afektatuak*: *zail, sinesgaitz, -egi, harrigarri, zoro, harritu, beldur izan, ..*

- (69) a. Ikaragarria da Jonek holakorik esan zuela pentsatzea.
b. Sinesgaitza da hemen artziki ikustea.
c. Harrigarria litzateke Don Primitivok euskarazko libururik irakurtzea.
d. Nire auzokoa inozoegia da inori kalterik egiteko.

B testuinguruak

a. Izatezko perpausetan (= perpaus existentzialetan):

- (70) a. Bada(go) ogirik etxe honetan (Laka 1996)
b. bada(go) zorionik munduan
(71) Bada oraindik haren ateraldi eta erantzunak gogoan dituenik

b. Iparraldean batik bat, berriz, existentzialetatik kanpo ere bai, enfasia emateko:

- (72) a. Udare onik badugu = “udare on ugari dugu”
b. Euskal Herrian ezagutu dugu aldaketa sakonik azken hamarkadan.
(73) Abogadu onik aurkitu du gure Angel zintzoak!

• Partitiboaren balioa (zehaztugabea, kopuruari lotutakoa)

- (74) a. Ez dut ikaslea ikusi (= ezaguna den ikaslea ikustea ukatzen da)
b. Ez dut ikaslerik ikusi (= ikasle bat bera ere ikusi izana ukatzen da)

- (75) a. Ez dut ardoa edaten. (= ardoa edatea ukatzen da)
b. Ez dut ardorik edaten. (= ardo kantitatea ukatzen da; ardorik ezari ematen zaio garrantzia)

2.3. Zenbatzaileak (zehaztuak, zehaztugabea, orokorrak)

2.3.1. Zenbatzaile zehaztuak (edo numeralak)

- **Zenbatzaile zehaztuen gramatika**

a. Kokapena:

- (76) a. lagun bat b. lagun bi, bi lagun c. hiru, lau lagun

b. Mugatzaileekin agertzeko gaitasuna badute:

- (77) a. Lagun bi etorri dira: (lagun) bata ez dut ezagutzen..
b. Lagun biak, lagun bi hauek, ...
c. Hiru lagunok, hiru lagun hauek, hiru lagunak, ...
d. Hogei lagunik ez zegoen ardanegi edo txalupetxe hartan (*Kresala*)

c. Komuntadura pluralean egin ohi dute (*bat*-ek izan ezik):

- (78) a. Hiru etxe ikusi ditut / Hamar lagun etorriko dira
b. % Hiru etxe ikusi dut / % Hamar lagun etorri da

- **BAT zenbatzailearen erabilera**

(79) Zurito bat edan zuen (hots: bat, eta ez gehiago)

- (80) a. Jonek auto berria erosi du
b. Jonek auto berri bat erosi du

(81) ??? Haize zakar bat dabil gaur

* BAT / BATA (bat + artikulua...); ikus EGLAko 93. orrialdea.

• **Neurri-sintagmak (≠ hitz elkartuak)**

- (82) a. Hiru litro esne
b. baso bat ur
- (83) a. ardo-litro bi, ardo-litro hauek, horiek, ...
b. ur-baso bat... ur-basoa, ur-baso hau, ...

• **Zenbatzaile banakariak edo distributiboak**

- (84) bana/bedera, bina/bira, hiruna, launa, ...
- (85) a. *Nik liburu bana erosi dut ... a'. guk liburu bana erosi dugu
b. *Nik liburu bana erosi dizut ... b'. nik liburu bana erosi dizuet
- (86) banaka, binaka, hironaka,...

• **Zenbatzaile ordinalak**

- (87) a. lehen(engo), lehenbiziko, lehendabiziko, aurreneko...
b. bigarren, hirugarren, ... c. azkenengo, azkeneko...
- (88) *bigarrenengo* zein *bigarreneko*...

• **Zenbatzaileetatik eratorritako adjektiboak: -kun, -koitz**

- (89) a. perpaus bakuna, hari bakuna, soineko bikuna...
b. jainkoaren seme bakoitza, egitura hirukoitza

2.3.2. Zenbatzaile zehaztugabeak

- (90) asko, aski, anitz, gutxi, nahiko(a), dezente, zenbait, hainbat, honenbeste...

• Kokapena eta bateragarritasuna: askok izenaren aurrean zein ostean agertzeko gaitasuna dute, eta izen zenbakarri zein zenbakaitzekin elkartu daitezke IS-ren barruan:

	<u>izenaren aurrean</u>	/	<u>izenaren ostean</u>	<u>[-zenbakarri]</u>
(91)	a. *batzuk lagun	/	lagun batzuk	*diru batzuk
	b. zenbait lagun	/	lagun zenbait	*diru zenbait
	c. asko gizon (ekialdean)	/	gizon asko	diru asko

d. anitz lagun	/	lagun anitz	diru anitz
e. *gutxi lagun	/	lagun gutxi	diru gutxi
f. honenbeste lagun	/	*lagun honenbeste	hainbeste diru
g. franko lagun	/	lagun franko	diru franko
h. nahikoa jende	/	jende nahikoa	diru nahikoa

- Mugatzaileekin agertzeko gaitasuna mugatuagoa da. Hala ere:

- (92) a. Ikaskizun gutxi utzi digute aurrekoek, eta *utzi diguten gutxia* aise zuzen eta hobe dezakeguna.
 b. Laboak *poema asko hauetatik* abesti ederrak egin zituen
 c. lagun gutxi batzuk
 d. lagun(ik) gehienak

- Komuntadura bietara egin dezakete normalean:

- (93) a. zenbait lagun ikusi {dut/ditut }
 b. asko gizon/gizon asko ikusi {dut/ditut }
 c. {badira/da} franko deabru
 d. honenbeste lagun ikusi {dut/ditut}

- Zenbatzaile zehaztugabe askok, IS barruko izenak zenbatzeaz gain, adjektiboak zein aditzondoak mailakatzeko gaitasuna dute; berdin aditzekin:

- (94) a. *Nahikoa interesgarria* da film hori
 b. *Ederto asko* kantatzen zuen Luis Marianok !
 c. *Gutxi nekatu* zara?

► **Zenbatzaile zehaztugabeen banan-banako azterketa**

- **asko/aski**

- (95) a. Liburu asko irakurri ditut
 b. diru asko irabazi dut
 c. ??esperantza asko, ??beldur asko, ...

- (96) a. polit askoa da etxe hura! b. gizon jator askia da hori!
(97) a. {Asko goiz /aski goiz} itzuli zen b. Goiz asko etorri dira
(98) Ikusleak asko aspertu ziren film hori ikusten
(99) libururik asko erosi zuten.

● **guti, gutxi**

- (100) a. Ikusle gutxi azaldu ziren kantaldira
b. ur gutxi edaten du horrek
c. beldur gutxi, esperantza gutxi, ...
(101) a. * luze gutxia da bidea b. * goiz gutxi esnatu nintzen
(102) Gutxi {nekatu, kezkatu...} zara
(103) “etxuek orraitino *damurik gitxi* izango mutilok aitari emoniko lepokadeagaitik”

● **franko**

- (104) a. Hitz berri franko b. franko ur / ur franko
c. franko gorroto, askatasun franko...
(105) a. nafarrak franko luxea zuen sudurra
b. franko ederki jotzen du gitarra.
(106) Franko harritu zen gizona
(107) a. Badiat horretarako arrazoirik franko (Gorrotoa lege, Etxaide)
(108) a. Gizona franko ikusi dut gaur mendian
b. Gizonak franko ikusi ditut gaur mendian.

● **nahiko(a), (dezente)**

- (109) a. Nahiko(a) lagun bildu da hemen.
b. Nahiko(a) ardo edan dut
c. Etxe honetako seme-alabek badugu nahiko(a) aberastasun

(110) a. nahiko {zaila, erreza...} / dezente {zaila/erraza}
 b. Nahiko {goiz, txarto}

(111) Nahikoa daki horrek / dezente daki horrek

(112) Bere zanean badala oraindik *odolik naiko* (Lauaxeta)

● **honenbeste, horrenbeste, hainbeste...**

(113) a. hainbeste egun
 b. hainbeste diru, hainbeste lan, hainbeste ur, ...
 c. Hainbeste gorroto badio bere anaiari (EH: 343)

(114) a. *Hainbeste {zaila, erraza, zoragarria...}
 b. * Hainbeste {goiz, gaizki, ederto, ...}
 c. Hain {zaila/ erraza/ zoragarria...}
 d. Hain {goiz, gaizki, ederto, ...}

(115) a. hainbeste maitemindu zen... b. Ez zaitetz hainbeste(an) larritu!

● **batzuk**

(116) a. bat + tzuk
 b. zer + tzuk, zein + tzuk, ...
 c. Liburu batzuk ekarri {ditut / *dut}

(117) a. {liburu, lagun} batzuk
 b. * gari batzuk
 c. * esperantza batzuk

(118) a. lagun gutxi batzuk
 b. *batzurik, *batzuak, ...

2.3.3. Zenbatzaile orokorrak (edo unibertsalak)

● **den(a), guzti** (mugatzailleekin eskuarki)

(119) a. horrek {dena, guztia} daki
 b. {denak, guztiak} etorri ziren

- (120) a. (neska-mutil) hauek guztiak etorri dira
b. (neska-mutil) hauek denak etorri dira

- (121) a. neska-mutil guztiak etorri dira
b. neska-mutil denak etorri dira

- (122) a. (neska-mutil) guzti hauek etorri dira
b. * (neska-mutil) den hauek etorri dira

● **oro**

- (123) a. gizaki oro hilkorra da
b. gizaki orok behar du hil eta salbatu (EH: 626)

- (124) a. ikasleak oro etorri ziren b. ikasleek orok dakite hori.
c. gauzen ororen kreatzailea

● **bakoitza**

- (125) Ama bakoitzak bere umea maite du

2.4. Determinatzaileei buruzko azken oharrak

- (126) a. “determinatzaile” izeneko guztiek balio dute izen arruntarekin IS osatzeko;
b. determinatzaile zehaztugabeak eta mugatzaileak elkarren banaketa osagarrian daude;
c. zenbatzaile zehaztuak eta zehaztugabeak ere elkarren banaketa osagarrian daude;
d. zenbatzaile zehaztugabeek badituzte mugatzaile eta determinatzaile zehaztugabeek ez dituzten zenbait ezaugarri (aditza, adjektiboa eta aditzondoa modifikatzea).